

MEMORIA HISTORIKOA ETA HERALDIKOA

ARMARRIA ETA BANDERA

OLABERRIKO UDALA (GIPUZKOA)

2006

TXOSTEN-ESKAERA

Olaberriko Udalak udal armarría eta bandera onartzeko txostena eskatu du 2001eko apirilaren 25ean. Aurrekari historikoak eta heraldikoak aztertu ostean, ondoren datorren proposamen-txostena egin da, Olaberriko Udalarí gomendioak emateko armarría eta bandera onartzeko espedientearen gainean.

LEGEZKO ARAUDIA

Gaur egun, herriaren armarríak, banderak eta ikurrak birgaitu, onartu edo aldatzeko, 1985eko apirilaren 2ko Tokiko Araudiko oinarriak arautzen dituen Legea bete behar da. Araudi horretan bertan dago finkatuta armarríak eta entseinak onartzeko zer prozedura jarraitu eta zer arau heraldiko eta bexilologiko kontuan hartu.

Gai horiei buruzko edozein akordio Udaleko osoko bilkuran onartu behar da; hori xedatzen du eta tokiko araudiko oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, 22.2b artikuluan, bai eta toki-erakundeen antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoa onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak ere, 186. artikuluan batik bat; izan ere, azken honela dio: Autonomia Erkidegoko organo eskudunak emango dizkiete toki-erakundeei tratamendu, ohore eta pribilegio bereziak, bai eta tituluak, armarríak, banderak, blasoiak, ikurriz eta dignitateak ere, betiere espedientearen izapideak egin ondoren. Eta hona hemen 187. artikulua agindutakoa: Udal armarríak onartzeko, Udalak osoko bilkuran hitzartu behar du; horrez gain, arrazoiak eman behar ditu, blasoi berriaren proiektu-marraskia egin behar du, Historiaren Errege Akademiak txostena idatzi behar du eta Autonomia Erkidegoko organo eskudunak onartu. Euskal Autonomia Erkidegoan abenduaren 1eko 364/1987 Dekretua ere aintzat hartu behar da, gai horiek arautzen ditu eta.

METODOLOGIA

Ikerketa egin ondoren, Udalak XIX. mendearen bigarren erdian erabili zuen udal zigilu bat aurkitu dugu tintan eginiko Udal Zigiluen Bildumako zigilu mordoren artean, Espainiako Agiritegi Historikoko Sigilografiako sekzioan, hain zuzen (Madrilen). Udallerriak zigilu heraldikoa erabiltzen zuen, tinbratu gabekoa: moztutako armarría: lehenengo zatia ere bitan banatua (batetik, zortzi puntako izarra zilar-ilgorarekin, eta bestetik, ondo ordenatutako bost panela); bigarren zatian zuhaitza ageri da zelaian. Inguruan, "Concejo de Olaverría" dioen inskripzioa, obaloan. Sigilografiako sekzioko beste fondo batzuetan

ere ikertu dugu (argizaritan, lakrean eginiko zigiluen bildumak, etab.) eta, orobat, Espainiako Liburutegi Nazionalan eta Historiako Errege Akademian gai horri buruz dauden lan nagusiak kontsultatu. Hori amaitzean, ondorioztatu dugu Olaberriako Udalak ez duela modu ofizialean eta berak bakarrik erabili ez armarririk ez banderarik, eta, beraz, beste batzuk, sortu berriak, hartu behar direla. Udal armari berria onartzeko, udalerraren iragan historikoan oinarritu behar dugu, baita toponimian eta monumentuetan ere. Horretarako, ikerketa sakona egin dugu gaiari buruzko bibliografiarik adituenean.

AURREKARI HISTORIKOAK ETA BESTE DATU INTERESGARRI BATZUK

Olaberria Gipuzkoako udalerrria da, Tolosako barruti judizialekoa, 21 Km-ra dago Tolosatik, probintziako erdialde-hegoalde arteko eremuan dago, itsas-mailatik 237 metrorako altitudetan, 6,9 Km²-ko eremua hartzen du, eta 47 Km-ra dago probintziako hiriburutik, Donostiatik.

Hurbilen duen komunikabidea tokiko errepidea da; Tolosa-Altsasu Nazional 1arekin komunikatzen du alde batetik, eta alboko Lazkaorekin bestetik. Tren-geltokirik gertuena Beasaingoa da: 4 Km-ra. Herria Olaberria kontzejuak eta Ihurre auzoak osatzen dute: kontzejuak oinarrizko biztanleria-nukleoa hartzen du; 2 Km-ra duen Ihurrek, berriz, industria garrantzitsuenak eta haiei lotutako auzoa hartzen ditu, eta hantxe bizi da herritar gehien. Iparraldean, Beasainen amaierarekin egiten du muga, hegoaldean Lazkaorenarekin, ekialdean Lazkaorenarekin eta mendebaldean Idiazabalenarekin. Olaberria Goierri eskualdekoa da; toponimiak argi uzten duen moduan, lurralde menditsua eta malkartsua da; Aizkorri inguruko mendietatik hurbil dago, eta antiklinal multzo horrek Bilboko antiklinalaren jarraipen geomorfologikoa osatzen du. Olaberria inguruan nabarmentzekoa da Urbaundi mendia, Beasaingo Oria ibaiaren ingurura jaisten dena. Mendiaren azpiko materialak Urgondar aurreko guneetakoak dira eta hainbat aro hartzen dituzte, Behe Kretazeotik Goi Kretazeora bitartekoak, hain zuzen. Herrigunea flyschoid-kareharri-buztin segidaz eraikitako lurren gainean dago. Mugetan zehar doaz Baskazabal eta Sultraitz errekek; Aranbetz erreka isurtzen dira eta guztiak Oria ibaira, herria mugatzen duen ibaira, alegia. Olaberriako kontzejuaren erdiko eremuak betiko landazabaleko paisaia du. Hortaz, batez ere, klima atlantikoko belardiak eta soroak daude; koniferen baso-sailak dira nagusi eta intsinis pinua da espezierik ohikoena. Hala ere, beste sail bat ere nabarmendu behar da: harizti azidofiloak eta harizti/baso misto atlantikoa. Azken formazio hori, ordea, pagadi azidofiloari ari zaio lekua egiten herriaren eremurik garaietan eta hegoaldekoetan. Probintzia osoan bezalaxe, klima epela eta hezea da: tenperaturak neurritzkoak dira neguan nahiz udan, 8^o eta 18^o artekoak, eta

prezipitazio ugari egon ohi da urte osoan, udan izan ezik, orduan iristen baitira mailarik baxuenera. Gaur egun, industria-jarduera berriak dira nagusi udalerrian, tradiziozkoenen (nekazaritza eta abeltzaintza) kalterako, noski, nahiz eta XX. mendearen erdialdera arte horiek izan inguru horretako ekonomiaren muina. Abeltzaintzak soilik du garrantzi pixka bat gaur egun, batez ere, azoketan egiten den haragi- eta esne-salmentak. Azienda 467 behik, 172 txerrik, 131 ardik eta 14 ahuntzek osatzen dute, 80ko hamarkadaren erdialdeko datuen arabera. Eta azienda dezente horretarako utzi dira, hain justu, larre-eremu handiak, abereak elikatzeko. Gainerako laborantzak (barazkiak, letxugak, tomateak, piperrak, etab.) azoketan saltzeko edo etxean jateko dira, eta gehienak 10 hektareatik 30era bitarteko ustiapenetan landatzen dira. Bitxia da hori, probintziakoekin alderatuz gero; izan ere, Gipuzkoako ustiapen gehienak 10 hektarea baino txikiagokoak dira. Olaberriko industriak garapen ikaragarria izan du 1960ko hamarkadatik aurrera. Lehen, udalerriak traktore-fabrika eta kare-labea besterik ez zituen, baina urte hartatik aurrera, Gipuzkoako industrialari garrantzitsuenetako batek, José María Aristrainek, metalurgia-sektoreko fabrika garrantzitsu bat jarri zuen Olaberrian. Udalerrian antzinako tradizioa zuen jarduera horrek, altzairua eta txapa magnetikoak eraldatzen baitziren industria kimikorako (sektore horrek ere ia metalurgiaren adinako garrantzia du).

Gainera, hiru industria kimiko ditu, oinarrizko gai metalikoen industria bat, eraikuntza mekaniko eta elektriko beste bat, beste gai metaliko eta fabrikatuen bat eta eraikuntzako zortzi. Olaberrian egin berri duten instalazioa ere aipatu behar da: altzarigintzako hainbat enpresek osatzen dute, eta herritarren % 18,87 hartzen du. Toponimia dela eta, herriaren hasierako izena "Zeba" zela esan behar dugu. Euskal jatorri garbia badu ere, hainbat eztabaida sortu ditu: batzuek "sel" errotik etor daitekeela diote, ganadua gordetzen zen eta jetzi eta ilea mozten zitzaion hesia edo korralea esan nahi baitu; eta beste batzuek "zelai" edo "zelan" hitzetatik datorrela, ganadua abaroan egoteko belardia esan nahi du eta. Azken esanahi hori onartuago dago, badagoelako oraindik Zeba-zelai izeneko lursail bat herritik hurbil. Alustizaren esanetan, oraindik ez dakigu zehazki zergatik jarri zioten herriari Olaberria izena lehengo Zebaren orde, dokumentu historikoen iturririk ez daukagulako. Autore horrexen ustetan, XV edo XVI. mende inguruan gertatuko zen ziur asko, hain zuzen ere, lehen burdinolak finkatu zirenean Oria ibaiaren ertzetan, Ihurre auzotik oso gertu. Denbora aurrera joan ahala, Zeba izen primitiboa eta artzain-mundukoa utzi eta Ola-berria izena hartuko zuten, herriko industria-jarduerekin hobeto zetorren eta.

SORRERATIK XVIII. MENDERA ARTE

Oso gutxi dakigu antzinako Zebaren lehen uneak nolakoak izan ziren finkatzeko. Alustizak dio Olaberriko lehen biztanleak euskal arrazakoak zirela ziur asko; artzain haiek berehala etxekotuko zituzten ardi basatiak eta haiengandik aterako lehengaiei esker biziraungo zuten inguru geografiko hain gogorrean. Hori guztia frogatzen dute Olaberritik hurbil dauden zenbait lekuk duten toponimia-kutsuak: Urkiola, Miraballes, Borda, Beko-etxetxiki, Estensoro, Garitain. Artzainak bizi izan ziren leku horietan duela ez horrenbeste arte. Geroagoko garaiei helduz (Erdi Aroan jada), autore horrek berak Juan de Mendoza kronistaren iritzia zabaldu zuen, itzulinguru batzuekin noski, Olaberriko lehen biztanleak Otxoatarren arbasoak izan zirela esan zuenean. Otxoa etxea egon zela frogatuta dago dokumentuetan XIII. mendearen hasieratik. Hala ere, X. mendean Olaberria Aleriako Alkatetza nagusiari lotuta bazegoen, eta Itsaso, Arriaran eta Lazkao ere bai, logikoa da Otxoa Etxea ere mende horretan egon zela pentsatzea. Sendi horretako gerlari asko nabarmendu ziren Erdi Aro eta Aro Moderno osoan. 1216. urtean Gaztelako Errege gazte Enrique I.ak baimena eman zion Pedro Otxoaren ondorengo bati leinuaren armariari gurutze gorri laua eta bost ilargierdi gehitzeko, bere alde borrokan hil ziren bost kapitain musulmanen oroigarri moduan. Beste ondorengo batzuk Calatravako Ordena Militarreko Ecijako etheen komendadore dignitatea izan zuten, Pedro Otxoak, esaterako. Eta beste batzuk eskualdeko noble-familia garrantzitsuekin topatu ziren, eta, horrela, Gipuzkoako, Arabako, Bizkaiko Jaurerriko eta Nafarroako hainbat lekutara zabaldu zen Otxoa abizena. Urte haietan eraikiko ziren seguru aski honako baserriok: Agerre, Amoskotegi, Azarola, Basozabal, Bengo-etxeun-dia, Bengo-etxetxikia, Bildotxaga, Erzille, Garitain, Iriarte, Iranzuaga, Matsalde eta Sagasti-illuna. Felipe II.aren erregealdian, 1565ean, eginiko inbentario batean, 24 etxe zeuden erregistratuta Olaberriko jatorrizko bezala.

X. mendetik gure herria hartzen zuen Aleriako Alkatetza Nagusiari buruzko lehen aipamena 1027. urteko dokumentu batean agertzen da; Nafarroako errege Santxo III.aren Errege Kantzelaritzak idatzi zuen eta Iruñeko gotzain-hiriari buruzkoa da. Denboraz Lazkao Etxeko kideek hartu zuten alkatetza horren erabateko ordezkaritza eta beren jaurerri txiki propioa egin zuten eremu osoan. Nolanahi ere, Olaberria Alkatetza Nagusi horretara aspalditik lotuta bazegoen ere, beti izan zuen bere jurisdikzio-mugartea, mugarri-sistema eta guzti, baita bere administrazio ekonomikoa, beste herrietatik aparte, ere, urtero bi edo hiru errejidore izendatzen zituena; gainera, etxezaina zuen ekonomiaz arduratzeko eta guztien zenbait ordezkari. Horrela, Gipuzkoako Batzar Nagusiek baino ez zuten agintzen bere gainean.

Alabaina, Lazkaoko jaunen kudeaketak kalte handia egin zion herri haietako biztanleen interesei. Bidegabekeriak eta isekak egiten zizkieten herritarrei etengabe. Gaztelako Enrique IV.ak berak ere (1454-1474) izan zuen horien berri, eta berehala hartu zituen neurriak egoera eteteko. Martin Lopez Lazkao hil ostean, behin betiko kendu zion Lazkao Etxeari Arieriako Alkatetza Nagusiaren jabetza, eta haren ordean, Fortun Nunzibai izendatu zuen, Erregearen konfiantzazko laguna eta etxe horretatik kanpokoak. Handik urte gutxira, Nunzibaik Gaztelako Erregeari iradoki zion Arieriako Alkatetza Nagusiko herri guztiak eurek aukeratutako eran gobernatu beharko liratekeela. Hurrengo urratsa Bergaran bildutako Gipuzkoako Batzar Orokorren aurrean izan zen, Fortun Nunzibaik Alkatetza Nagusiari uko egitean. Gero, Erregeak gutun bat idatzi zuen Segovian, 1461eko martxoaren 12an, eta hari esker, Donostiako Foruaren salbuespenen barruan sartu ziren Arieriako Alkatetza Nagusiko herri guztiak, Olaberria barne. Erregeak, halaber, Alkatetzako bizilagun guztiei Buruzagia, Kontzejua eta Kontzejuaren zigiluak izateko eskubidea aitortu zion. Orduetik aurrera, landa-gune haien arteko elkarbizitza ona izan zen, noizean behingo ika-mika batzuk gorabehera. Horrela ibiliko ziren, oro har, ia 300 urtean. Elkartasun-itun bat sinatu zuten, eta, haren arabera, sei urtetik bostetan Lazkaotarren seme batek izan behar zuen alkate bi herrietan, eta seigarren urtean Olaberriako batek. Dena den, hasieran giro ona egonda ere, gobernatzeko modu bitxi horrek azkenean haserreak eragin zituen Lazkaoko Alkatearen eta Olaberriko bizilagunen artean, olaberritarrek uste zuten-eta Lazkaoko Alkateak iseka eta burla egiten ziela. Horren ondorioz, XVIII. mendearen hasieratik saiatu ziren, serio saiatu ere, Olaberria banantzen, baina, hasiera-hasieratik, Lazkaok ezezko borobila eman zion saio horiei. Borrokan mende bat igaro ondoren etorri zen behin betiko banaketa, probintziako korrejidoreak bi herrien banaketa onartu zuenean eta gero Gaztelako Kontseilu Gorenak onartu zuenean, 1804ko urriaren 5ean. Ondorioz, Erdi Aroan sortutako lotura eten egin zen. XVIII. mende bizi horretan bertan ere bukatu ziren XVI. mendearen amaieratik San Joan Bautistaren parrokiaren egiten ari ziren birmoldaketa-lanak. Ia ez dago antzinako eraikin erlijiosoaren berri ematen duen dokumenturik, bada, 1597ko sutean galdu egin ziren parrokiako agiriak. 1568. urte inguruan oso gaizki egon behar zuen, ordea; izan ere, urte hartan bisitari jeneralak konponketa-lanei ekiteko agindu zion parrokiako zaintzaileei, eraikinaren itxura eta egitura eskasa hobetze aldera. Dena den, ezer gutxi egingo zen, handik hiru urtera, 1571n, berriro ere agindu baitzuen obra horiek egiteko. Azkenean, 1589ko uztailearen 11n, Iruñeko Gotzaingoak obrei ekiteko behar zen baimena eman zion. Orduan, Domingo de Areiztiburua hargin-maisuaren esku utzi ziren planoak, eta kabiloak eta herriak Alkizako Miguel de Miranda kontratista hautatu zuten obra gauzatzeko. Lanaren

truk, herriak 50 dukat eman zizkion eta parrokiak beste 800 dukat, zordunek zor ziotenaren eta 1589 eta 1594 urteetako hamarrenak eta primiziak kobratzeko eskubidearen kontura. Kontratista laster hasi zen gehiegikeriak egiten eta olaberritarrek salatu egin zuten, baina 1595ean, puntu gatazkatsuak argitu zituztenean, lanei ekin zitzaizen berriro. Oso luze jo zuten, XVII. mende osoa eta XVIII. mendearen zati handi bat hartu baitzuten. Hainbat hargin-maisuk hartu zuten parte eta goitik behera aldatu zuten parrokiaren itxura primitiboa: teilatu berria jarri zuten, dorrearen zimenduak sendotu zituzten eta eskailera jarri barruan, gangak jarri (parrokiak ez zuen gangarik hasieran), zinbriak, korua, sakristia zaharrean (1575etik dokumentatua) aldare nagusi berria jarri, arrosarioko aldarea eta San Bartolomearen aldarea egin, tenpluko lurzoruko lauzak berritu, ateak, hainbat irudi jarri (nabarmentzekoak dira San Jose, Loiolako San Inazio, San Bartolome, Sortzez Garbia, San Isidro Nekazaria eta Jesus gurutzean), hilerri berria (XIX. mendean jada), presbiterioa, pulpituak, kanpai berriak (1565etik ageri dira dokumentuetan), dorrerako ordulari berria eraiki zuten 1790ean eta hainbat aldiz konpondu XX. mendean, eta azkenik, eliz ataria.

San Joan Bautistaren parrokiak gain, bi ermita ere egon ziren Olaberriaren garai batean: Santa Gurutzekoa eta Santa Luziakoa. 1564tik behintzat agertzen dira dokumentuetan. Urte horretan, Parrokiako ondasunen inbentarioa egiteko agindu zuen Lopez de Alquiza doktore jaunak, Iruñeko gotzain-hiriko Bisitari Nagusiak, eta inbentario horretan ageri dira bi ermitak. Gaur egun Santa Gurutzekoa bakarrik dago zutik; Santa Luziakoa 1842an desagertu zen, lursail haiek herriaren hilerri berrirako erabili zirenean.

OLABERRIA XIX ETA XX. MENDEETAN

Guztiak zain zeuden Lazkao noiz bananduko, eta hori gertatu zenetik, 1804tik, erakundeen lasaitasuna izan zen ezaugarri nagusia XIX. mendearen hasieran. Elikagai aldetik, berriz, krisi handia egon zen eta 1808an Napoleonen inbasioa etorri zen. 1845ean, Isabel II.aren lehen gobernu liberalak egon zirenean, Olaberriak alkatea, alkateordea eta lau errejidore zituen, urte hartako urtarrilaren 8an ateratako Udal Legeak agintzen zuen eran. Sasoi hartan, udalerrria Burgosko Lurralde Auzitegiarena zen justizia aldetik, eta Iruñeko gotzain-hiriarena elizako kontuetan. 44 etxe zeuden guztira, baserriak gehienak. Lehen hezkuntzako eskola bat ere bazen: 30 mutiko eta 14 neskato hartzen zituen eta 600 erreal zituen. San Joan Bautistaren parrokia-elizako langileak bikario bat, Valmedianoko markesaren benefiziodun bat, Lazkao etxeko jaun moduan, eta bikarioaren eta errejidoreen sakristauak ziren. Madozek nabarmentzen zuen laborantzek erdipurdiko

kalitatea zutela: garia, artoa, ailorbea, arbia, oloa, zekalea, babak, sagarrak, intxaurrak, barazkiak eta lekaleak. Era berean, autore horrexek zioen hazienda nahiko handia zegoela, behiak nahiz txerriak, eta asko ehizatzen zirela otsoak, erbinudeak eta erbiak gure herriaren inguruan. Olaberriren duela gutxiko historian alderdi interesgarrienetako bat zera da, XX. mendearen bigarren erdian demografia-hazkunde handia izan zuela. XIX. mende osoan, Olaberriko biztanle-kopurua nahiko egonkorra izan zen, gorabehera handirik gabea; 1848an 433 bizilagun ziren herrian, eta 1900ean, mendearen azken urtean, 508, hau da, 75 laguneko hazkundera besterik ez zuen izan mende erdian. Gobernu liberalek higiene eta osasun aldetik egin zituzten hobekuntzak zirela bide, biztanle-kopuruak gora egin zuen mende berriaren lehen hamarkadetan, 1940ra arte, gutxi gorabehera. Bada, urte horretan 502 biztanle erregistratu ziren. Jaitsiera hori ulertzekoa da 1936-1939ko Gerra Zibilean egon zen hildako mordoak kontuan hartuta. 1950etik 1960ra bitartean hasi ziren kopuru horiek goraka, etorkin mordoak iristearekin batera; Espainia barrualdeko nekazaritza-guneetatik zetozen, urte haietan Olaberri finkatu ziren industria handiek erakarrita. 1960tik aurrera, Aristrain instalatu zenetik, kopuruak izugarri egin zuten gora: 1970ean guztira 1.520 ziren jada, herriak bere historia guztian izandako kopururik handiena zen hura. Oso esanguratsua da 1.520 biztanle horietatik 1.150 lhurre auzoan zeudela; Olaberriko industria-jardueren erdigunea da hori, jakina den legez. Ordutik aurrera, eta 1973ko industria-krisiaren ondorioz, kopuru horiek behera egin zuten 1996ko erroldan 1.010 biztanlera iritsi arte, herriak 1960an zuen kopurura, alegia.

JAIK

Gaur egun, San Joan parrokiako eta kontzejuko patroia jaia ospatzen da ekainaren 24an, San Joan Txiki eguna edo San Joan Bautistaren lepoa moztu ziotenekoa abuztuaren 29an (XVIII. mende hasieran sortu zen), Santa Gurutzeren asmaketarena maiatzaren 3an, San Migel arkanjelua irailaren 29an eta Santa Luzia abenduaren 13an. Jose Langile Deunaren jaia ere asko ospatzen da lhurre auzoan eta jende andanak hartzen du parte; XX. mendeko 60ko hamarkadan hasi ziren ospatzen, maiatzaren 1ean.

UDAL ARMARRIA

Játivako (1991) eta Zaragozako (1994) heraldika-adituen bilera nazionaletan eginiko gomendioen arabera, udal armari berria hautatzeko irizpide edo printzipio nagusiek herriaren historian eta monumentuetan oinarritu behar dute. Herriaren ezaugarriak, garrantzi handikoak nahiz gutxiagokoak, sinbolikoki irudikatu edo aipatu daitezke era

askotako pieza eta irudi heraldikoak erabiliz. Motibo horien artean aipatzekoak dira kondairei buruzkoak, mitoetakoak, geografiko edo fisikoak, erlijiosoak edo Olaberriko jaunen antzinako armategietan oinarritutakoak. Alabaina, gomendio horien esanetan, alderdi sinboliko garrantzitsuak edo bereziak falta izanez gero, hitzezko motiboak hartzeko aukera aztertu behar litzateke, hau da, Udalaren toponimoaren beraren jatorria eta esanahia, benetakoa edo fonetikoa. Olaberriak zigilu ofiziala izan zuen XIX. mendean, Lazkako jaunen armetan oinarritutakoa ziur asko. Horretarako, armari gorri bat erabili zuten: urrezko banda bat herensuge-buruetan sartzen zen, goian zilarrezko ilgora eta urrezko izarra zituen, eta behean zilarrezko bost panela. Lehen esan dugun bezala, aurreko mendeko udal zigiluak elementu horiexek dauzka, banda izan ezik. Hortaz, armari heraldiko moduan onartzeko nahikoa baldintza betetzen dituela uste dugu, antzinako jaunen armetan oinarritzen delako haien berdina izan gabe. Beraz, arma horiek hautatzea bistakoa dela dirudi, aurreko mendetik erabili dira eta. Blasoak horrelakoa izan behar du:

Armari ertaina, zatitua eta moztua: lehenengoa: lehena eremu gorrian, puntak armariarenaren aldera dituen zilarrezko ilgora eta urrezko zortzi puntako izarra paldoan ipinita, eta bigarrena zilarrezko eremuan, bost panela gorri ondo ordenatuta. Bigarrena: urrezko eremuan, arbola berdea zelai berdean. Armari tinbreduna, urrezko errege-koroa eta guzti.

UDAL BANDERA

Bexilologia zientziak ematen duen askatasun handiaren barruan, sistema hau aukeratu dugu: pentsatutako udal bandera osatzeko Olaberriko kontzejuaren sinbolo heraldikoetan oinarritzea. Bandera berri bat onartzeko aukera mordoa dago, bexilologiako arauak heraldikakoak baino askoz malguagoak baitira. Gure iritziz, hala ere, udal banderak guztiok onartutako identifikazio-ikur bat izan behar du, nahiz eta koloreak ikusizko estetika aintzat hartuz aukeratu. Ikur hori udal armari ofiziala izango da oraingoan. Esandakoa kontuan hartuz, bandera bat proposatu zaio Olaberriko Udalari udalbatzaren osoko bilkuran, kideen gehiengo absolutuaz ofizialki onar dezan. Hauxe da banderaren deskribapena:

Oihal angeluzuzena, 2:3 proportziokoa, gurutze batez lau zatitan banatua. Lehenengoa eta laugarrena gorriak, eta bigarrena eta hirugarrena zuriak. Olaberriko Udalaren armari tinbreduna du erdian, gainera jarrita.

Eta Olaberriko Udalak bere udal armarrria eta bandera hartzeko erabakia har dezan, hau sinatu dut Segovian, 2006ko ekainaren 20an.

Juan Pablo de Quevedo y Llorente jaun txit prestua. "Señorío de torre de Juan abad" heraldika eta bexilologiako Espainiako Elkarteko Presidentea, Udal heraldikako Borbone institutuko zuzendaria, Heraldika eta Genealogiako Segoviako Elkarteko kide numerarioa.

CARLOS NAVARRO GAZAPO jauna, Heraldika eta Genealogiako Madrileko Elkarteko akademikoa, Genealogia, Heraldika eta Noblezian diplomatua, Zientzia-ikerketetako Kontseilu Nagusiaren Salazar y Castro Institutuan.